

Wikipedian iturriak aipatzen

Iturriak aipatzea funtsezkoa da, Wikipediako edukia fidagarria izango bada. Hona hemen nola aipatu behar diren iturriak, lantzen ari zaren artikuluetan.

Wikipediako printzipio nagusietako bat da entziklopediara gehitutako datuek egiaztagarriak izan behar dutela. Bestela esanda, Wikipedian idazten duzun guztia iturri fidagarri bati egotzi behar zaio, hala nola parekoek berrikusitako aldizkari bat, liburu bat, edo egunkari nagusiren bateko artikulua bat.

Oro har, Wikipediara ekartzen duzun paragrafo bakoitzeko iturri bat aipatu beharko zenuke. Eta, betiere, aipu guztietan, datu soil guztietan (hala nola estatistikak) eta polemikoak izan daitezkeen baieztapen guztietan iturria aipatu behar da. Gehitzen duzun edozein informazio, iturriarik aipatu ez bada, Wikipediatik ezaba daiteke; beraz, garrantzitsua da zure lanari aipamen egokiak eranstea.

Gogoan izan: Wikipedian debekatuta daude ikerlan originalak. Horrek esan nahi du ez dela egokia bi iturrietatik eskuratu dituzun informazioak elkarri lotzea ondorio berri batera iristeko. Horren ordez, bila ezazu beste iturri bat, berez ondorio hori ateratzen duena, eta aipa ezazu iturri hori. Har dezagun esaldi hau, konparazio baterako:

«*Dopaketa*ren aurkako Mundu Agentzia 1990ean ezarri zen,^[1] baina kirol profesionaletan *dopaketa* handitu egin zen 1990eko hamarkadan.^[2]»

Datu horietako bakoitza aipatutako iturrietatik hartua izanik ere, iturri horietan ez dagoen ondorio bat adierazteko moduan konbinatu dira.

Hasi baino lehen egin dezakezuna

Bila ezazu nabarmendutzat edo ontzat hautatutako artikulua bat, idazten ari zaren gaiaren barruan, eta ikus ezazu ea artikulua horietan nola aipatu dituzten iturriak. Jakintza gai batzuetan, adibidez biomedikuntza zientzietan, iturriak aipatzeari buruzko eskakizun handiagoak izaten dira. Wikilari batzuk iturrien aipamenak testuaren barruan jartzearen aldeko dira. Adibidez, «bizkaiera Gasteiz inguruan sortu bide zen» jarri beharrean, «Koldo Zuazok dioenez, bizkaiera Gasteiz inguruan sortu bide zen» idaztea egokiago ikusten dute. Eta, izatez, iturria testuaren barruan jarri beharko litzateke norbaiten hitzak aipatzean, dela zuzeneko estiloan (esaterako, «Koldo Mitxelena dio: “*Busturia* izenaren jatorria *bost uri* da segur aski”»), dela zehar estiloan («Koldo Mitxelena dio *Busturia* izenaren jatorria *bost uri* dela segur aski»).

Ez dago aipamenerako estilo onargarri bakarra Wikipedian (MLA estiloa, APA estiloa...). Hala ere, estilo koherentea erabili behar zenuke artikulua osoan; horrenbestez, lehendik dagoen artikulua bat osatzen ari bazara, egiazta ezazu erreferentzia guztiak estilo berean daudela. Lehendik dagoen artikulua bat osatzean, kontuz ibili lehenago aritu diren wikilariak artikuluari jarritako iturri aipamenak nahi gabe ez ezabatzeke. Aipamenean estiloan koherentzia ziurtatzeko —eta zure iturri aipamenak gehitzeko, oro har— bide erraz bat da edizio barrako «Aipatu» aukera erabiltzea.

Edizio barrako «Aipatu» aukera erabiltzea

Edizio barra agertzeko, klikatu «Aldatu» aukeran (artikuluaren goialdean, edo artikuluko atal baten izenburuaren ondoan); ondoren, edizio barran, klikatu «Aipatu». Horrela, iturriaren aipamena txertatzeko aukera ematen dizun leihoa aterako zaizu. «Automatikoa» eremuan, iturriaren URLa, DOI kodea, ISBN zenbakia edo PMC/PMID kodea jarrita, datu gehienak automatikoki osatuko dira (hala ere, URLarekin batzuetan ez da aski izaten); «Eskuz» klikatzen baduzu, iturriaren datuak (izenburua, egilea, argitaratze data...) sartzeko aukera emango dizu. Bukatutakoan, sakatu «Txertatu»

eta, ondoren, «Aldaketak argitaratu» (goian, eskuinean). Artikuluaren bukaeran, gehitu ==Erreferentziak== izeneko atal bat. Atalburu horren azpian, idatzi: {{erreferentzia zerrenda}}. Kodeak atal horretan automatikoki formateatuko eta zerrendatuko ditu artikuluan zehar txertatu dituzun iturri aipamenak.

Ikus, gainera

Informazio gehiago nahi baduzu, ikus ezazu hau: Erreferentziei buruzko laguntza orria:

<http://eu.wikipedia.org/wiki/WP:Erref>